# BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BEAZ SAU-REN ARTEKO HITZARMENA LUTZATZEA. HITZARMENAREN XEDEA DA EKONOMIA SUSTATZEKO SAILAREN JARDUKETA-EREMUAN BALIO ERANTSIKO JARDUERAK ETA ZERBITZUAK BATERA GARATZEA.

## BILDU DIRENAK

Alde batetik, Ainara Basurko Urkiri andrea, Ekonomia Sustatzeko foru diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa.

Beste alde batetik, Olatz Goitia Urquiaga andrea, BEAZ SAUren ordezkari gisa, erakunde horren zuzendari nagusi den heinean, 2019ko irailaren 25eko 2242. eskrituraren bidez Bilboko Juan Beguria Cortabitarte notarioaren aurrean emandako ahaletan oinarrituta.

Aldeek elkarri aitortzen dizkiote hitzarmenaren luzapen hau formalizatzeko beharrezko gaitasuna eta eskumena, eta hauxe

## ADIERAZTEN DUTE

I.- 40/2015 Legean jasotako aurreikuspenetan oinarrituta eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak onetsi ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Beaz SAUren arteko hitzarmena formalizatu zen 2022ko otsailaren 10ean. Hitzarmenaren xedea da Ekonomia Sustatzeko Sailaren jarduketa-eremuan balio erantsiko jarduerak eta zerbitzuak batera garatzea. Sinatutako hitzarmenak ez dakar konpromiso ekonomikorik alderdi sinatzaileentzat. Era berean, hitzarmenaren eranskin gisa, datuen babesaren arloko dokumentazio juridikoa onetsi eta sinatu zen.

# PRÓRROGA DEL CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y BEAZ, S.A.U. PARA EL DESARROLLO CONJUNTO DE ACTUACIONES Y SERVICIOS DE VALOR AÑADIDO EN EL ÁMBITO DE ACTUACIÓN DEL DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA.

## REUNIDAS

De una parte el Dª Ainara Basurko Urkiri, diputada de Promoción Económica, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia.

De otra parte Dª Olatz Goitia Urquiaga, en representación de la Sociedad BEAZ, S.A.U., en su condición de directora general de dicha entidad, en base a las potestades otorgadas mediante escritura número 2242, de 25 de septiembre de 2019 ante el notario de Bilbao D. Juan Benguria Cortabitarte.

Reconociéndose las partes mutua capacidad y competencia para formalizar la presente prórroga del convenio

## EXPONEN

I.- En base a las previsiones contempladas en la Ley 40/2015 y previa su aprobación por Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia se formalizó el 10 de febrero de 2022 el convenio entre la Diputación Foral de Bizkaia y Beaz, S.A.U. para el desarrollo conjunto de actuaciones y servicios de valor añadido en el ámbito de actuación del Departamento de Promoción Económica. Del convenio suscrito no se derivan compromisos económicos para las partes firmantes. Asimismo, como anexo al convenio se aprobó y suscribió la documentación jurídica en materia de protección de datos.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: M9WE-8PFW-0C0K-JCTD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

II.- Hitzarmena garatzeko egindako jarduerak bi alderdiak gogobetetzen ari dira. Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak eta BEAZek, hitzarmenaren seigarren klausulan xedatutakoari jarraikiz, eta hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak 2025eko otsailaren 20an egindako bileran erabakitakoaren arabera, hitzarmenaren indarraldia luzatzea egokitzat jotzen dute. Sail honek egokitzat jotzen du 2029ko uztailaren 20ra arte luzatzea.

II.- Las actuaciones realizadas en desarrollo del convenio se están produciendo a satisfacción de ambas partes, por lo que tanto la Diputación Foral de Bizkaia como BEAZ, en virtud de lo dispuesto en la cláusula sexta del convenio, y de acuerdo con lo acordado por el Comité de Seguimiento del convenio en la sesión celebrada el 20 de febrero de 2025, consideran oportuno prorrogar su vigencia. Se estima oportuno por parte de este departamento que la prórroga sea hasta el 20 de julio de 2029.

Azaldutakoaren arabera, beharrezko izapideak eginik, alderdiek hitzarmenaren luzapena formalizatzen duen dokumentu hau sinatzen dute, honako klausula hauen arabera:

En virtud de lo expuesto, cumplimentados los trámites oportunos, las partes suscriben el presente documento que formaliza la prórroga del convenio, de acuerdo con las siguientes

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

Lehenengoa. Klausula orokorra

2022ko otsailaren 10ean sinatutako hitzarmenaren klausula guztiak indarrean egongo dira 2029ko uztailaren 20ra arte, luzapen honetan jasotako klausuletan xedatutakoak aldatzen ez baditu. Orobat, indarrean jarraituko du hitzarmenarekin batera sinatutako datuen babesaren arloko dokumentazio juridikoak.

Primera. Clausula general

Seguirán en vigor hasta el 20 de julio de 2029 todas las cláusulas del convenio suscrito el 10 de febrero de 2022 que no resulten modificadas por lo dispuesto en las cláusulas relativas a la presente prórroga. Asimismo, se mantienen en vigor la documentación jurídica en materia de protección de datos suscrita junto al convenio.

**Bigarrena. 2022ko otsailaren 10ean sinatutako hitzarmenaren seigarren klausula aldatzea.**

Seigarren klausula honela geratuko da idatzita:

*"Seigarrena – Hitzarmenaren indarraldia.*

*Lankidetza-hitzarmen hau 2029ko uztailaren 20ra arte egongo da indarrean."*

**Segunda. Modificación de la cláusula sexta del convenio suscrito el 10 de febrero de 2022.**

La cláusula sexta pasa a tener la siguiente redacción:

*"Sexta – Plazo de vigencia del convenio.*

*El presente Convenio de Colaboración tendrá vigencia hasta el 20 de julio de 2029."*

Hirugarrena. Saileko zuzendaritza nagusien

Tercera. Actualización de las denominaciones de las direcciones generales

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: M9WE-8PFW-0C0K-JCTD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

izenak eguneratzea.

Eguneratu egiten dira saileko bi zuzendaritza nagusien izenak, honela:

*"Ekintzailetza eta Lurralde Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusia"* dioen lekuan, *"Ekintzailetza, Talentua eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusia"* adierazten dela ulertu behar da.

*"Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusia"* dioen lekuan, *"Lurralde Lehiakortasunerako eta Kanpo Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia"* adierazten dela ulertu behar da.

Eta hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, alderdiek hitzarmenaren luzapen hau sinatzen dute.

departamentales.

Se actualiza la denominación de las dos direcciones generales departamentales de la siguiente forma:

Donde se indica "*Dirección General de Emprendimiento y Competitividad Territorial*" se entiende indicado "*Dirección General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial*".

Donde se indica "*Dirección General de Competitividad Territorial y Turismo*" se entiende indicado "*Dirección General de Competitividad Territorial y Promoción Exterior*".

Y, para que conste y surta los efectos oportunos donde proceda, las partes firman la presente prórroga del convenio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: M9WE-8PFW-0C0K-JCTD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus